
the balde
urria | azaroa
october | november
24
0€
ez dizut minik emango
sex, lies and duck tape

# 24





## the balde

**marzelo zelaieta 75**
**13. bulegoa**
**31014 iruñea**
**t. +34 948 12.19 76**

**kristobaldegi 14**
**20014 loiola donostia**
**t. +34 943 44 44 22**

**info@thebalde.net**

**publi@thebalde.net**
**m. +34 639 20 80 22**

**www.thebalde.net**



**argitaratzailea / publisher:** eragin.com komunikazioa eragin sll
**editore / editor:** iñigo martinez
**zuzendaria / director:** koldo almandoz.
**diseinu burua / head of design:** martin etxauri.
**zuzendari komertziala / comercial director & publizitatea / publicity:** mireia mugika, edu pinillos.
**diseinua / design:** martin etxauri, unai abarzuza, sonia beroiz, juan luis napal, igor astigarraga, angel burgaña, ekaitz auzmendi, berta osés, txuma vazquez, javier villalabeitia.
**itzulpenak / translations:** smiley, amaia orella.
**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:** uxeta labrit, arkaitz billar, xabier erkizia, juan luis etxeberria, lorea bidegain, iñaki olano, uxeta labrit, arrleku arkitektoak.
**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:** gisli ari hafsteinsson, susana segurola, uxeta labrit
**web orria / web page:** ainara gorostiaga.
**ale honetako komikia / comic this issue:** txuma
**ale honetako harpidetza orria / subscription page:** iker ayestaran

**inprimategia / printed at:** espacegrafic.
**lege gordailua / legal:** na-3244/01



www.creativecommons.org


irudia / image: **odlok**



lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:
imaginative, provocative and interesting works? send them to:
**info@thebalde.net**



### SK8UKN ( URRIA,AZAROA, BIZKAIAKO HAINBAT HERRIETAN)

Uribe Kostako skaterrak dira erakusketa honetako protagonistak. UK aldizkariak ekoiztu du Carlos Terreros argazkilariaren SK8UKN izeneko bilduma hau. Uribe Kostan beste edozein gauzaren gainetik labaintzeko joera nabarmentzen da eta honezkero zalantzak ditugu Sex Pistols-ek Anarchy in the UK kantatzen zuenean ez ote zuen Bizkaiako lur eta itsasalde hau buruan izango. Info gehiago UK aldizkarian edo helbidean.

www.terrefoto.com

### SK8UKN ( OCT, NOV. ALL OVER BIZKAIA)

The protagonists of this exhibition are skaters of the Uribe coast. This last collection, entitled SK8UKN is produced by the photographer Carlos Terreros. In the Uribe coast there is a great tendency for sliding and by the time being we doubt whether Sex Pistols didn't think about this land and coast when they sang Anarchy in the UK. Get more info in the UK magazine or in this address:

www.terrefoto.com

## ITSASOAK BA AL DU ESPERANTZA-RIK?




### MUNDAKA ZAINDU

Gure asmoa, aurten ere, Mundakako munduko surf txapelketaren inguruan zerbait idaztea zen. Baina honezkero jakingo duzuen moduan aurten ez da ospatuko txapelketarik Mundakan olaturik ez dagoelako. Mundu osoan izan dute desagerpen honen berri eta gurean baino garrantzi handiagoa eman diote hainbat tokitan ( australiarrek ezin dute sinetsi egoera honetara nola iritsi garen ). Ez dakigu olatua itzuliko den. Ez dakigu munduko txapelketa itzuliko den. Dakigun bakarra, askotan lehenengoan bizi garela uste dugula, baino gauza askotarako 3. mundukoak gara.

www.euskalsurf.com




### MEM COPENHAGEN. (URRIAK 30,31)

Aurten abenduan izango da MusicaExMachina jaialdia Bilbon, baina aurretik, Euskal Herriko ikus-entzunezkoen proiekzioa antolatu dute Danimarkako hiriburuan. Filmez gain Pilar Baizanen musika esperimental proiektua aurkeztuko dute ( ) eta amaitzeko Ramon Churruca eta Alberto Lomas-en performancea izango da.

www.musicaexmachina.com

### MEM IN COPENHAGEN. (OCTOBER 30,31)

This year MusicExMachina festival will de held in December in Bilbao, but before this event, an audiovisual projection of the Basque Country has been organized in the capital of Denmark. Apart from the films, they will show Pilar Baizan's project on experimental music () and finally, the performance of Ramón Churruca and Alberto Lomas.

www.musicaexmachina.com

### SAVE MUNDAKA

This year, our aim was to write something about the surf competition of Mundaka. However, and as most of you probably know, no competition will be held because there is no wave in Mundaka. This piece of new has been spread out around the world and they give it more importance than we do (Australians cannot imagine how we end up in this situation). We don't know if the wave will come back. We don't know if the world championship will be back. What we know is that often, we think we live in a developed country. However, there are many things we do as we lived in a non-developed country.

www.euskalsurf.com





**ELEKTRONIKALDIA.**
Urtero lez, azken joerak eta inguruko eta nazioarteko artista abangoardistenak eskainiko dizkigu Elektronikaldiak. Gune nagusia Zurriolako ondartzatik bi pausotara dagoen Okendo kultur etxean izango da. Donostia Elektronikoa lehiaketako irabazleak ere 7. edizio honetan euren lana erakutsiko digute.

www.elektronikaldia.org

**ELEKTRONIKALDIA.**
As every year, Elektronikaldia offers the last trends and the most avant-garde international artists. The main area will be located next to the Zurriola beach, in the Okendo culture house. The winners of the Donostia Elektronikoa competition will show their work in this 7th edition.

www.elektronikaldia.org




**KIMUAK 05/06 KATALOGO BERRIA.**
Mundu osoko zine jaialdietatik urtero eskatzen duten katalogoa da Kimuak. Azken urteotan Euskal Herrian eginiko film laburrak ezagun egin dira nazioartean eta honezkero hainbat Zinemalditan sail osoa eskaintzen hasi dira Kimuak katalogoetan azaldutako laburrekin. Urte gutxitan nazioarteko erreferentzia bihurtu da Kimuak. Gurean hain ohikoak diren egitasmo kultural ponposoek badute nondik ikasi.

www.kimuak.com



**90 GRADOS**
90 grados espaziokoek antolatu zuten aurkezpen festara ilea garbitu eta orraztu gabe azaldu ginen. Espazio gisa definitzen dugu gune hau, bertan arte galeria, liburu denda, ile apaindegi, eta aurrerantzean bestelako mutazio ugari ezagutu ahal izango ditugu. Donostiako alde zaharrean dago. 90 graduko anguloa egiten duten bi kaleetara irekia eta ez zara erakusleiho aurretik pasako barrura begiratu gabe.

**90 GRADOS**
We went tousled and messy to the inaguration party organized by 90 grados. We define this place as a space because there is a gallery, a shop store, a hairdresser and many other mutations that we will discover in a future. It is located in the old part of Donostia, opened to two streets that form an angle of 90 grades. If you pass by the shop window, you'll take a look inside.

**KIMUAK 05/06 NEW CATALOG.**
Kimuak is a catalogue asked every year from all the film festivals around the world. Lately, the short films of the Basque Country have become very famous internationally and many Festivals have asked for this catalogue. In the last few years, Kimuak has become an international reference. The most typical cultural pretentious projects among us have now a model.

www.kimuak.com

SHORT LENGTH... WIDE CONCEPTS







# KOTXEAK
# APARKALEKUAK
# ATASKOAK

**M2 FESTIVAL (URRIAK 29)**
Monegros desertuko udako jaialdian astindu ederra ematen diogu gorputzari. Antolatzaileei ez zaie ordea nahikoa iruditzen eta udazkenerako beste jaialdi bat antolatu digute. 3 pista ezberdin eta 30 artista baino gehiago.

www.m2festival.com





**M2 FESTIVAL (OCTOBER 29)**
We shake enough our bodies in the summer Monegros festival. But it's not enough for the organizers and they have organized another festival for this fall. 3 different stages and more than 30artists.

www.m2festival.com

**MAIDER LOPEZ ARTIUM-EN (URRIAREN 20TIK URTARRILAREN 8RA)**
Gasteizen erdialdean dagoen museoak artista donostiarrari eskainiko dio erakusketa. Bere artelana egunerokotasunean kamuflatzea gustoko duen sortzaileak bere azken lanak erakutsiko dizkigu. Ez dugu pista gehiagorik emango...baina erakusketak alboko irudiarekin eta bertan azaltzen diren elementuekin zerikusia izango du.

www.maiderlopez.com

**MAIDER LOPEZ IN ARTIUM (20 OCTOBER - 8 JANUARY)**
The museum in the middle of Gasteiz will offer the exhibition to this artist from Donostia. This artist, who likes to camouflage her work in daily life, will show her last work of art. We won't give more clues…however; her exhibition has something to do with this image and with the elements that are shown.

www.maiderlopez.com

**HORROR AND FANTASY FILM FESTIVAL. (29 OCTOBER-5NOVEMBER)**
As a contemporary of Morticia Adams, Alaska welcomes people every year from the cardboard entrance. Sometimes we feel ashamed to promote this festival; we don't want any of our dears to suffer any serious change. As death, this Terror and Fantasy Festival should last forever. Terror week: the festival that every festival would like to have someday…

**BELDURREZKO ZINEMALDIA. (URRIA 29-AZAROA5)**
Morticia Adams garaikide baten moduan, Alaskak ongietorria ematen digu aurtengo Beldurrezko Asteko kartoizko ataritik. Zer esatea nahi duzue...askotan pena ematen digu zinemaldi honen promozioa egitea, gure kuttunetako batek aldaketa larregirik eta masifikaziorik pairatzea ez dugu nahi. Heriotzaren moduan betirako iraun beharko luke Beldur eta Fantasiazko Zinemaldiak. Beldurrezko Astea: zinemaldi orok, egunen batean izan nahiko lukeen zinemaldia...



PANDA SURVIVAL SHOP
sex is the only way out
KINKY TOYS
GET WET
VIDEO BOOTHS
LOVE DOLLS
SEX WAX
Big 2 Tits
LUCY special offer
PANDA SUTRA
2nd edition
DON'T MISS IT
PANDAGE
MADE IN JAPAN
VIBRA BALL
Candice
EASTPAK
BUILT TO RESIST
www.eastpak.com











COLDPLAY
Gwyneth Paltrow-ren senarra eta Apple txikiaren aitak, bere taldekideekin batera, kontzertua eskainiko du Donostiako belodromoan azaroaren 25ean. Azken hiruzpalau urteotan rock-pop panoraman azaldu den talderik esanguratsuenetarikoa ( Parachutes azken urteotan pop musikan eragin nabarmena izan duen diskoa denik ezin ukatu) zuzenean entzuteko aukera izango dugu.




ARE YOU READY FOR WIMAX?




WIMAX
Telekomunikazioen alorrean sekulako iraultza suposatuko duen asmakizuna izan daiteke edo teknologi berrien unibertsoko bluff berri bat. Wimax-ak beste abantailen artean 50kmtako kobertura du kablerik gabe antena bakarrarekin, standar internazionala du, Intel-en babesa duenez ordenagailuetan seriez izango dugu, 40Mbps-ko abiadura du oraingoz, baina esan bezala kablerik gabe eta ahots komunikazioa ahalbideratzen du. Wimax-ak sortzen dituen galdera eta zalantzak direla eta BlogWimax martxan jartzera bultzatu
www.blogwimax.com

ELEKTRORADIOGRAMA. THEBALDE GAUA BRANKAN! (URRIAK 21)
DJ Arka?-ren aukeraketa musikalarekin gozatu eta gune berezi eta liluragarri batetaz gozatzeko aukera ezin hobea Haizearen Orraziaren parean dagoen Brankan. Itsasoko olatuek Arkaren bihotzean ezartzen duten erritmoari segika trago batzuk eta gau ederra pasatzeko parada. Gonbidatua zaude...

www.branka-tenis.com

COLDPLAY
Gwyneth Paltrow's husband and little Apple's father and his band will be on concert in Donostia next November 25. We'll have the chance to enjoy a live concert of one of the most significant bands in rock-pop (we cannot deny that Parachutes has been an influential album in pop music these last years).

WIMAX
It might be an invention that causes a revolution in the field of telecommunication or a new bluff in the universe of new technologies. Wimax has many advantages, such as: a non-cable 50 km coverage with one antenna, international standard, since protected by Intel, found in many computers. 40 Mps speed, but, as mentioned, it enables voice communication with a non-cable system. Since Wimax raises many questions, they are planning to promote BlogWimax.

www.blogwimax.com

ELEKTRORADIOGRAMA. THEBALDE NIGHT IN BRANKA! (OCTOBER 21)
An excellent opportunity to have a good time with DJ Arka's music choice and enjoy this beautiful place in Branka, opposite the Comb of Wind. A good chance to follow the rhythm that sea waves place in DJ Arka's brain and have some drinks. You are invited…

www.branka-tenis.com

MUSIKA BELARRIETAN
ITSASOA BEGIETAN
THE BALDE


skunkfunk
clothes · underwear · accessories
fall
winter
05/06
0034-94 625 79 22
www.skunkfunk.com

eko zulotik

eroticism for the basque country

argazkiak/shots: susana segurola






















BEKATUAK
ANA URKIZA
elkar
ANA
254
URKIZA


ERAGIN.COM
TAKE THE MONEY
AND RUN DESIGN
diseinu grafikoa, internet & argitarapenak • info@eragin.com


gure
artean
euskaraz
!
Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila
Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura



# no comment

jeber • albero behea

# paperpapers

testua / by: the balde

## lupus

### frederik peeters. astiberri.

Zientzia Fikziozko road movie batekin harritu gaitu “Pildoras Azules” eleberri grafikoaren egileak oraingoan. Zientzia fikziozkoa bada ere, hemen ez dago planeten arteko gudarik edo antenadun martziar berderik. Peeters-ek adiskidetasuna, maitasuna eta heriotza bezalako gaiak jorratzen ditu inongo kutsu dramatikorik gabe. 4 albumeko bilduma izango da Lupus nobela grafikoa. Lehendabizikoa irakurri dugu eta bigarrena noiz atera zain gaude honezkero. Komikiak droga bat dira.

The author of the graphic novel “Píldoras azules” surprises us now with a science fiction road movie. Although it is science fiction, there is no war between planets or green Martians. He talks about friendship, love and death without any kind of dramatic influence. The graphic novel “Lupus” is a collection of 4 album. We already read the first one and we are willing to read the second. Comics are a kind of drug.




## mute

Mute aldizkariak artea, teknologia eta politikaren arteko harremanak aztertzen ditu. Batzuetan, intelektual kutsuko ekoizpen askoren gaitza errepikatzen da hemen: Hizkuntza teorikoegia erabiltzeagatik, komunikazioa erraztu beharrean justu kontrakoa gertatzen da. Hala ere, aldizkari interesgarria da eta 1994. urtetik hona gizarteak pairatutako aldaketa eta hauen aurrean emandako erantzunen aniztasunaren plataforma izan da Mute. Sarean ere topa dezakezu. www.metamute.com

Mute magazine analyses the relationships between art, technology and politics. Sometimes, there is a repetition of the damage of many intellectual productions: Because of a use of theoretical language, there is trouble with communication. However, it is an interesting magazine. Since 1994, Mute magazine is a platform that holds the changes of society and the variety of reactions those changes provoqued.







## el barón rampante

### italo calvino. siruela.

Ez da liburu berria. Zuetako askok irakurria izango duzue honezkero. Baina iruditzen zaigu, liburu hau irakurri ez duen pertsona bat dagoen bitartean merezí duela gomendatzen jarraitzea. Kritikoen aburuz  ez da izango literatura pieza goren horietako bat, baina gu ez garenez kritiko, irakurle soilak garenez, literaturaren bidez Cosimo eta Violaren maitasun istorioarekin nerabezaroan maitemintzeko genuen gaitasun hori berreskuratzeko gonbitea egiten dizuegu. Trilogía osatu nahi duenak El vizconde demediado eta El  caballero inexistente irakur ditzake. Ez zarete damutuko.

It’s not a new book. Most of you have already read it. However, we think that as long as there is a single person who hasn’t read it, it’s worth keeping recommending it. According to critics, it might be not a big literary work, but as we aren’t critics but simple readers, we invite you to get back your teenage ability to fall in love with the stories of Cosimo and Viola. For those who want to complete the trilogy, they can read “El vizconde demediado” and “El caballero inexistente”. You won’t regret it!




## han goitik itsasoa ikusten da

### julen gabiria. elkar.

Julen Gabiriari behin baino gehiagotan irakurri dizkiogu egunkari eta aldizkarietan txirrindularitzaren inguruan idatzitakoak. Ziklismoa bizitzaren metafora ederra izan daiteke. Bere baitan drama, erromantizismoa, ahalegina, pasioa eta zortea beste edozein kiroletan baino  muturrerago eramaten direlako. Azken urteotan gauzak asko aldatu dira kirolaren munduan. Txirrindularitzan baita ere. Baina Gino Bartali bezalako ziklista eta pertsonei esker mugiezinak diren hainbat printzipio daudela frogatzen digu Gabiriak.  Bizikleta baten gainean gozatu duen ororentzat irakurketa gomendagarria... (bizikleta baten gainean gozatu ez duenik existitzen al da?)

We have read many articles about cycling in different newspapers and magazines by Julen Gabiria. Cycling can be a beautiful metaphor of life because in life, drama, romanticism, effort, passion and luck are taken to the limits, unlike in any other sport. However, things have changed in the last years. And so do in cycling. However, Gabiria proves that thanks to cyclists such as Gino Bartali, there are some fix principles. Recommended for those who have sometime enjoyed riding a bike (is there anybody who hasen’t enjoyed riding a bike?)



## Freedom Flies (edo ehiztari ehizatuaren parabola).

AEBak eta Mexiko banatzen dituen mugan etorkinak ¨ehizatzera¨ ateratzen den minuteman project izeneko boluntario talde ultraeskuindarraren egitasmoari zerutik iritsi zaio erantzuna.

MTI-ko ikerlari talde batek, hasera batetan erabilera militarrerako pentsatua zegoen asmakizun bat beste helburu batzuetara bideratu du: Mugan etorkin ilegalen ehizan ateratzen diren milizien jokabidea kontrolatzeko kometak erabiliko dituzte. Freedom Flies izenarekin bataiatu dute proiektua. Kometa hauetan kamarak ezarri eta etorkinak ehizatzera ateratzen diren taldeak filmatu eta gertatu daitezkeen bortxakeria kasuak filmatzeaz gain, ¨minuteman¨-en gainean begi oroikusle baten presioa ezartzea da asmoa.

Guri bitxia iruditu zaigu, hain justu, eta aipatu bezala, the balde 22. alean jorratu genuelako minuteman project egitasmoa. Eta aurretik, the balde 20. alean kometen bidez ateratako irudien inguruan artikulua egin genuen. Kasualitate hutsa da. Bitxikeria. Baina the balde egiteko erabiltzen ditugun osagaiak bitxikeria eta kasualitateak izaten direnez askotan, aipamena egitea merezi zuela pentsatu dugu.

## Freedom Flies (or the tale of the hunted hunter).

The project of the extreme right wing volunteer group that "hunt" immigrants in the border between USA and Mexico named Minuteman Project has got a response from heaven.

A group of MTI researchers has used an invention that was originally created for a military use with other aims: They will use kites to control the behavior of the military service that go out to hunt new immigrants. Freedom Flies is the name of this new project. Some cameras will be placed in these kites in order to record the movement of the groups and apart from recording the possible cases of violence, the aim of "Freedom Flies" is to put a big eye that sets pressure.

It is amazing the fact that, as mentioned, we already talked about the Minuteman Project in the past 22th copy. Before that, in the 20th copy of this magazine, we had an article about kites. Just a coincidence. Amazing. As the elements we use to create the balde are peculiarities and coincidences, we thought they were worth a comment.


LADINAMO
ASOCIACION CULTURAL
ALDIZKARIA MAGAZINE
ARETOA MEETING POINT
ARGITALETXEA EDITORIAL
ANTZERKIA THEATRE
DANTZA DANCE
DJ-AK DJS
www.ladinamo.org
c/Mira el Sol, 2
28005 Madrid


golem LA MOREA 12_areto
golem BAIONA 06_areto
golem YAMAGUCHI 05_areto
golem LOS LLANOS 03_areto
golem
goi-mailako zinea!
EROSI TELEFONOZ ZURE SARRERAK
948 222 333
www.golem.es
EROSI ORDENAGAILUZ ZURE SARRERAK

# gazteak

Lau gazte dira lau. Elkarrekin bizi dira eta saio bakoitzean, euren etxea, Bagdadeko komisaldegi bat bezain suntsituta amaitzen du.

Mike pubetan hazitako ingeles petoa da. Urrezko katedun pultserak eta lepo zabaleko trajeak janzten ditu. Makarra hutsa. Neil hippy tximaluzea da. Etxeko sukaldari ofiziala eta lentejen kofradiako ohorezko kidea. Vivyan, emakume izena duen punk-metal ilegorria, txikitan speed eltzean erori zen. Rick akrata eta antifaxista. Ni-ez-naiz-homosexuala-baina-hala-banintz-ez-nuke arazorik-izango eta soziologia ikaslea.

Oroimeneko zokoren batean gordetzen genituen lau gaizkile hauen andantzak eta triskantzak. Duela gutxi DVD formatuan kaleratu berri duten The Young Ones (Gazteak) ez da ordea nik oroitzen nuen hura: Buddy Holly sabaiko teilatuan buruz behera paraxutistaz jantzia, hitz egiten duten tostadora eta patata frijituak, apokalipsiaren lau zaldunen zine komentarioak, logelan lehoiak zaintzen dituen domadorearen esketxa, polizia eta boterearen aurkako leloak, polizia eta boterearen aurkako leloak botatzen dituztenen gaineko trufak.... Amaitu ezina litzateke telesail honetan azaltzen ziren eduki parapsikologikoen zerrendaren aipamena.

Gazteak, oroitzen genuena baino kutreagoa da, edo denborak behintzat kutreagotu du. Espero baino erritmo geldoagoa du gainera –MTV kutsuko errealizazioarekin ez du zerikusirik- eta alderdi teknikoei erreparatuta kaskarra da, telebista lokalek duten itxura zatar hori du. Horregatik da The Young Ones saio itzela. BBC kateak bi denboraldietan burua galdu eta ekoiztu zuen saioa ez maitatzea ezinezkoa da, egun halako saio bat telebistan ikustea ezinezkoa delako besterik ez bada. Askea, eroa, zikina, sinplea, astoa, surrealista, zorrotza, basikoa, azkarra, politikoki ez zuzena eta gauza guztien gainetik... maitagarria.

Eta ezin dugu aipamenik gabe utzi, lau gazte hauen etxeko egongelan jotzen ikusi ditugun taldeak. Bapatean, eta saioa eten gabe, besteak beste Maddness, Motörhead, Ramones eta 9 Below Zero bezalako taldeen zuzenekoak txertatzen ziren kapituluaren erdian.

The Young Ones, gaztetasuna bezala, laburrean luzea, denboraren iraganean errepikagaitza.




testua / by: odlok





the young ones

Four young geezers. They all live together and by the end of every episode their house resembles the pile of rubble that makes for your average downtown police station in Baghdad.

Mike is your typical pub-breed Brit. Big fat gold bracelets and wide collar suits. A real wide boy. Neil is the lanky hippy. He's the official pad chef and an honorary member of The Lentil Appreciation Society. Then there's Vivyan, the red-haired punk heavy metaller who fell into the speed cauldron as a snapper. Finally, Rick the anarchist and anti-fascist, the 'I'm-not-gay-but-if-I-were-I-wouldn't-have-a-problem-with-it' sociology student.

The recently released DVD The Young Ones is no The Young Ones I remember: jumping off Buddy Holly roofs dressed up as parachutists; the speaking chips and toaster; the Four Horsemen of the Apocalypse as movie critics; the bedroom sketch with the lion-tamer; the anti-power ands police slogans; the taking the piss out of those who slag off the police and those in power… the list of para-psychological content in the series is never-ending.

The Young Ones is more sloth-like than the one we remember, or at least it seems the passing of time has made it so. The rhythm is slower than expected – it's certainly a world away from MTVesque productions technically speaking. It's got that crappy local TV production feel to it. And that's why The Young Ones is fucking brilliant. Amazing. The BBC lost the run of itself for two series and came up with this impossible-not-to-love show. You'd certainly never see anything of the like on current TV. Liberated, crazy, filthy, simple, over-the-top, surrealist, sharp, basic, quick, definitely not politically correct and above all… lovable.

Oh, before we forget. What about all those groups that played in the sitting room? Bang out of nowhere, without upsetting the flow of the show, bands like Motorhead, Madness, Ramones and 9 below 0 live in your face in the middle of the programme.

The Young Ones, like youth in the heel of the hunt, unrepeatable.



text / by: **xabier erkizia** · argazkiak/shots: **xabier erkizia** eta **asier gogortza**

# (un) common sounds
## (ez) ohiko soinuak, ideia amankomunak













Nola eta zergatik zabaldu dira hainbeste duela hainbat hamarkada sortutako kontzeptu musikalak? Nola eragiten dio honek hain egoera zaila bizi duen industria diskografikoari? Zerk bultzatzen ditu milaka egile esperientzia hauek partekatzera? Zer da batzen dituena? Zer da banatzen dituena? Nola komunikatzen dira ingurunearekin? Nola lantzen da harreman hori? Zergatik sortzen dute musika?

(un)common sounds, gaur egungo soinu sorkuntza esperimentalaren inguruan eginiko hausnarketa eta analisiaren ondorioz sortutako egitasmoa da. Alor honetan, duela gutxi arte irudika ezina litzatekeen produkzio mailara iritsi gara eta urteotan sortutako dinamika eta esperientzia desberdinek sorkuntza artistikoaren alorretik atentzio berezia merezi dutela erakusten dute.

Geografikoki munduan zehar banaturik dauden sorkuntza gune independenteek eta errealitate ezberdinak bizi dituzten sortzaileek euren artean dituzten harremanak islatu nahi dituen proiektua da (un)common sounds. Artista sare handi honen ikuspegi bat eman eta toki ezberdinetan baina errealitate paraleloak bizi dituzten artistek euren lanak partekatu ahal izateko saiakera da. Proiektuak garatzen diren herrialde bakoitzeko esperientzia konkretuak eta saiakera indibidualak oinarri hartuta, egungo errealitate sonoroaren nondik norakoak aztertzeko diskurtso sendo eta zabal bat garatu nahi du.

**asmoen artean:**

- Jatorri ezberdinetako sortzaileek euren errealitate konkretuen azterketa egiteko plataforma malgu bat sortu nahi da.
- Musikaren inguruko ezagutza eta eztabaida garatuko duten egitasmoak sortu.
- Sortzailea eta bere ingurunea batzen dituen loturen azterketa sustatu.
- Poposamen musikal arriskutsu garaikideen aurrean ikuspegi berriak eskaini.
- Sormen sare honen aberastasunaren adibide izango den artxibo zabala sortu.
- Nazioarteko instituzio eta taldeen arteko kolaborazio sareak sortu

Joan den udaberrian Liman (Peru) egindako lehen esperientziaren ondotik, Artelekukoa (un)common sounds egitasmoaren bigarren ekitaldia izanen da. Bertan izanen dira, Julien Ottavi (Frantzia), Lucas Abela (Australia)…

Proiektu honen bultzatzaile eta garapen lanetan Xabier Erkizia (Lesaka, 1975) Dimitris Karyofillis (Atenas, 1972), Marta Font (Barcelona, 1979)

datak: azaroaren 18, 19, 20, 21, 22

How and why did musical concepts created some decades ago spread so much? How does this affect to the hard times that discography industry is going through? What makes authors move to share these experiences? What makes them together? What makes them apart? How do they communicate with environment? How does this relationship work? Why do they create music?

(un)common sounds is a project created as a consequence of some analysis and thoughts about the experimental creation of nowadays' sounds. In these last years, we have reached an imaginable level of production and the last dynamics and different experiences show that they deserve a special attention from the field of artistic creations.

(un)common sounds is a project that wants to reflect the relationship between artists who live different realities and the independent creation spots spread around our geography. This is an attempt for artists who live parallel realities in different places to share their works and to give a view of this big group of artists. This project, based on different specific experiences and individual attempts in each country, wants to fulfill a well-founded speech to analyze the whereabouts of the actual sonorous reality.

**these are some of their plans:**

- To create a flexible platform in which creators of different origins can analyze their own specific reality.
- To create a project where music topics and knowledge will be discussed.
- To propel an analysis to show the union between the creator and his environment.
- To show new points of view to contemporaries of risky musical proposals.
- To create a file that will be an example of the richness of this group.
- To create collaborations between international institutions and groups.

After our experience in Lima (Peru) last summer, the one in Arteleku will be the next act of (un)common sounds. We'll get the chance to see: Julien Ottavi (France), Lucas Abela (Australia)

The promoters and developers of this project: Xabier Erkizia (Lesaka, 1975), Dimitris Karyofillis (Atenas, 1972), Marta Font (Barcelona, 1979)

dates: november 18, 19, 20, 21, 22

www.uncommonsounds.org
www.arteleku.net
www.ertza.net
www.electrograph.gr


brankajazz
delicious live jazz...
ostegunero 20-22 h
E.Txillida Ibiltokia 13
(haizeen orrazia) Donostia
brankamusik
blacky power dj's...
ostiral/larunbatero 23-2 h
SanMiguel


xalem
megadenda
xalbador


ENTZUN! 45 JADA KALEAN
BERRI TXARRAK, SORKUN, MAKALA, THE BOOGIE PUNKERS, SLEATER-KINNEY, HELLO CUCA, CELIBATE RIFLES, SEÑOR NO, ARIMA BELTZA, BANDA BATXOKI, THE GO-BETWEENS, MIKEL URDANGARIN, SOLO LOS SOLO, DERIVA, AINARA LEGARDON...
ATZERA BEGIRA: MCD, TIM BUCKLEY
URTEKO HARPIDETZA 15 EURO
entzun@entzun.com
WWW.ENTZUN.COMWWW.ENTZUN.COMWWW.ENTZUN.COM



# teenage fanclub
# zorion une ukiezin hori

Text by señor amor

Most people say that love is untouchable; that it doesn't fit in a matchbox, but that it is bigger than the new airbus. How much love is there in a flower? And in a cell? Isn't it strange? We spend half of our lives trying to explain things that have no explanation. When someone said it was untouchable, she or he might have had his/her own reasons. That's it.

However, it is easier to relate untouchable elements. For example, there is a close relationship between love and happiness. We should ask to those teenagers who first started in the game of love. They always have a smile like Joker's in Batman. I can't think of a better way of dying than dying for happiness (except for dying making love). Besides, this goes two ways. Many people get the other's metric tons. However, how much happiness space does a metric ton fill? In my own case, and as I am small and anonymous, a single day-to-day detail can cheer me up. I try to get back a childhood concept: the first boredom feeling comes up on the day of your first communion. After this moment, how many bored children have been seen? I find my biggest happiness dose in compact discs, in good discs. I don't classify my discs by tendencies. In my house shelves, the discs are classified according to the happiness amount they have. Teenage Fanclub are among the top positions.

A melodic sunbeam. The highest level of simplicity, the purest optimistic feeling that can be transmitted by air, made with no pretension, hairstyle or clothes marketing. A heart opens and happiness sunbeams pour out. You reach this situation with no explanation and suddenly, you get in a project that makes you lose your money, your mood gets better and become a source of energy. Then you drive 900 kilometers (you are 30!!) to see a music concert or you take your guitar to reach the level of your friends.

For happiness (and love, and illusion and…) is like energy. It isn't created and is indestructible. You cannot buy it, it can get transmitted. It captures you, takes you high, loads you and shoots you. However, it is still legal.

Askok dio maitasuna ukiezina dela, ez dela pospolo kaxa batean sartzen baina airbus berria baino handiagoa dela. Zenbat maitasun dago lore batean? Eta zelula batean?
Arraroa ezta? Azalpenik ez duena azaltzen saiatzen pasatzen dugu bizitza erdia. Adjektibo hori jarri zitzaionean zerbaitengatik jarri zitzaion. Eta kitto.

Errazagoa da ordea ukiezinak diren elementuak erlazionatzea. Adibidez erlazio estua dago maitasuna eta pozaren artean. Galde diezaietela amodioaren goitiberan lehenengo bidaiak egiten dituzten nerabeei, Batman komikiko Jokerrek berarentzat nahiko lukeen irribarrea dute beti aurpegian. Niri ez zait pozez hiltzea baino modu hobeagorik bururatzen bizitza honi agur esateko (amodioa eginaz hiltzea kenduta, jakina) Eta bi norabideetan doa gainera. Bati baino gehiagori bestearen tona metrikoak tokatzen zaizkio. Hala ere...Zenbat espazio betetzen du tona metriko bat poz?:-)
Bizitzak une pozgarriak eskaintzen jarraitzen du bilgarri ezberdinetan. Nire kasu partikularrean, txikia eta anonimoa naizenez, eguneroko bizitzaren detaile batek ni pozteko gaitasuna du. Haurtzaroko kontzeptu bat berreskuratzen saiatzen naiz: aspertze sentimendua lehendabiziko komunioarekin azaltzen da. Une traumatiko horren aurretik aspertuta dagoen zenbat haur ikusi duzue? Nire poz dosi handi bat diskoetan topatzen dut. Disko onetan. Ez ditut egile edo tendentziengatik sailkatzen. Nire etxeko apaletan, diskoak kantuen poza zamagatik daude sailkatuak. Eta lehendabiziko postuetan Teenage Fanclub daude.

Eguzki izpi melodiko bat. Sinpletasunaren mailarik gorena, airez transmititu daitekeen baikortasun sentsaziorik garbiena. Pretentsio eta orrazkera edo jantzi marketing estudiorik gabe eginikoa. Bihotza irekitzen da eta poztasunez betetako izpi melodikoak isurtzen dira. Azalpenik gabeko egoera horretara iristen zara eta bat batean dirua galtzen arazten dizuten proiektu horietan sartzen zara, zure aldarteak gora egiten du eta energia sorburu bihurtzen zara. Harekin eta harengatik 900 kilometro egiten dituzu (30 urterekin!) musika emanaldi bat ikusteko edo gitarra hartzen duzu inbidiak jota, zure lagunen mailara iritsi nahian.

Zeren eta poza (eta maitasuna, eta ilusioa, eta...) energiaren modukoa da. Ez da sortzen eta ez da suntsitzen. Ez da erosten. Transmititu egiten da. Harrapatzen zaitu, igotzen zaitu, kargatzen zaitu, disparatzen zaitu. Eta hala eta guztiz ere legala izaten jarraitzen du.




My life feels so worthwhile
When I go where you send me
When I can't find a smile
You've got one to lend me

Teenage Fanclub – "Happiness"





testua/by: **uxeta labrit**





# mia tigrearen alaba

Gauza ugari irakurri dugu Maya Arulsalpragam, M.I.A.-ren inguruan (Missing In Action). Bere lehendabiziko diskoaren izenak, Arular, Sri lankako iparraldeko Eelamgo askatasun tigreen buruzagietako bat den bere aitaren ezizenari egiten dio ohore. Arul Pragasam, Arular. Ezizenez eta ezkutaturiko errealitate ezberdinez beteta dago Maya Arusalpragam-en bizitza. Ez da harritzekoa. Haur bat zenetik errefuxiatu gisa bizi izan da Londonen. Bere aitak ezkutuan eman ditu azken hamarkadak eta bere familia mehatxupean bizi izan da beti. Mayak, duela gutxira arte bere aita, osaba zela sinetsita zegoen. Ziurtasun neurri gisa, hori sinistuta bizi izan ditu azken 28 urteak.

Bere disko eta bideoen irudia eta ikonografía ausartak berak sotu ditu. Eta egun, garai anti-terrorista globalean, jarrera eta izaera sendoa adierazten dute. Arazo ugari izan du irudi eta zabaldutako mezuekin. Argi dago lehergailuetan aditua den gerrillari baten alabak, hollywood-eko aktore eta ezkertiar ofizialak i baino susmo gehiago pizten dituela  El terrorismo es un método, pero Estados Unidos ha conseguido empaquetar a todos los grupos independentistas, revolucionarios o extremistas como si fueran una sola cosa y su lucha contra el terrorismo afecta al mundo más incluso que el propio terrorismo". esaten duenean. MIA-ren proposamena sinesgarria da, bere bizitzari erreparatuta bere kantuen hitzak topikotik haratago doazela nabari dezakegu. Bere gorputz ederrean janzten dituen markako arropen azpian  oihanetik ihes egindako tigre baten larrua sumatzen dugula.   Honezkero zaila zaigu burutik kentzea iraultzaren marketinak asko laguntzen duela diskoak saltzerako orduan.  Zalantzak zalantza, eta marketina alde batera utzita, gauza bat  ezin zaio ukatu tigresa honi: Bere musika entzutean gorputza mugitzen ez duenak... ez dago bizirik edo ez du bizitzea merezi.







# mia the tiger's daughter

We've read a lot about Maya Arulsalpragam, M.I.A. (Missing In Action). The title of her first record, Arular, honours her father's nickname. Her father is the leader of the Tamil Freedom Tigers from the north of Sri Lanka. Arul Pagasam, Arulur. Maya Arusalpragam's life is full of nicknames and hidden realities. Her father has been in hiding for decades, and her family has always lived under threat. This has caused her family to take special security measures. When she was small, they told her that her father was dead, and that the man who made the odd nocturnal visit was her uncle. That uncle was Arular. That said, they couldn't put up with that type of lifestyle for long and she has lived in London as a refugee since childhood.

The imagery and iconography she uses on her record and in her video are her own. And in today's global anti-terrorist world, she certainly cuts a striking figure that's not backing down. She's had her handful of trouble with the imagery and lyrics she's come up with. It's clear that the daughter of a guerrilla bomb expert is going to attract more attention than a Hollywood actor and the Official Left when she says stuff like "Terrorism is a method, but the American Government has lumped all the independence groups, revolutionists and freedom fighters in to the same sack, as if they were the same thing as terrorists, and their fight against terrorism in the world causes more damage than the one they're supposed to be fighting." MIA is believable. She takes stock of her life and her lyrics go way beyond the clichés- You can sense the tigress hidden in the beautiful body clothed in the latest fashions. It's hard for us to put aside the fact that marketing revolution really helps to shift units, but doubts aside, there's one thing that can't be denied this tigress: anybody who listens to her music and doesn't want to move is either not alive or doesn't deserve to be.








# AUDIO

testua/by: **elektro**

**JAMIE LIDELL**
Multiply
Warp 2005

Cristian Vogel-ekin batera “Super_Collider”-en ezagutu genuen hasiera batean Jamie Lidell. 2000.enean bere bakarkako lehen diskoa “Muddlin Gea” argitaratu zuen. Orain bueltan dator urteko diskoa bilakatu daitekeen “Multiply”-rekin. Hemen funk, soul edo elektronika nahasten ditu, azkenaldian faltan botatzen genuen irudimen, ahalmen eta ilusioarekin. Horrela entzuten du gainera batek honako diskoa: ilusioz. Warp diskoetxeak berriz ere asmatu du, argi utziaz musikaren industrian badela esperantzarik.

The first time we met Jamie Lidell was in “Super Collider” by Cristian Vogel. In 2000 he published his first album, “Muddlin Gear”. Now he’s back with an album that might become the best album of the year, “Multiply”. He mixes funk, soul and electronic music with imagination, ability and illusion. And that’s exactly how one listens to this album: with illusion. Once again, Warp publishing house was right showing that there is a hope in the music industry.

**D. TRIBLE & THE LIFE FORCE TRIO**
Love is the answer
Ninja Tune 2005

Denboraren poderioz pisua irabaziko duen disko unibertsala da honako hau, argitaratu aurretik jada harribitxi bihurtzen diren horietakoa. Dwight Trible pisu handiko musikaria dugu, besteak beste Pharaoh Sanders bezalakoen alboan lan egin duelako. Carlos Niño-k (Ammoncontact-eko partaidea) bultzatutako proiektuan dator oraingoan. “Love is the answer” disko futurista da: jazz, hip hop, elektronika, psikodelia edo funk erritmoak nahasten dituena inoiz ezagutu den dotorezia eta arimaz. Musikaz gozatu nahi duen guztiarentzat ezinbestekoa.

This is a universal album that will gain power as time goes by, like those that become a precious stone before being published. Dwight Trible is an important musician who has worked with artists such as Pharaoh Sanders. He’s back with a project propelled by Carlos Niño (participant in Ammoncontact). “Love is the answer” is a futurist album: he mixes jazz, hip hop, electronic, psychedelic and funk rhythms with elegance and soul. This is an essential album for those who want to enjoy music.

**MAD PROFESSOR**
Method to the madness
Trojan 2005

Hogei urtetik gorako ibilbidea bildu nahi izan du Neil Fraser-ek (Mad Professor) bere lan berrian. Bere Ariwa Sounds laborategira gerturatzeko bilduma da honakoa (aurten 25 urte bete dituen laborategia). Bi diskotan banatuta dator: Lehenengoan reggae-aren ibilbidean ezinbestekoak diren izenekin egindako lana erakusten digu: Max Romeo, Horace Andy, Lee Scratch Perry… Bigarrenean berriz bere alderdirik esperimental eta kimikoena: Jamiroquai, Massive Attack edo The Orb bezalakoei egindako nahasketak.

Neil Fraser (Mad Professor) wanted to collect 20 years into his new work. His collection, “Ariwa Sounds” is one to take into a lab, a lab that is 25 this year. This collection is divided into two albums: In the first one he shows us the work he has done with other reggae musicians: Max Romeo, Horace Andy, Lee Scratch Perry…In the second one, he shows his most experimental and chemical side: some mixes done to Jamiroquai, Massive Attack or The Orb.

**ELURRETAN**
Mara-Mara
Moonplace 2005

Orain arte, tarteka, talde ordiziarraren singleak eta iraupen ertaineko lanak iristen zitzaizkigun. Eta guri pertsonalki taldearen filosofia hori gustatzen zitzaigun: kantuak kaleratzea, zuzenean jotzeari uko egitea, rockstarren jarrerari bizkarra ematea. Disko luzearen argitaratzearekin gutzi hori aldatuko zenaren beldur ginen. Diskoa -edizio zaindu eta diseinu ederrekoa gainera- eskuartean izan dugun arte. Elurretanen kantuak, mara-mara entzuten diren horietakoak dira: arinak, naif-ak, alaiak, pretentsiorik gabeak, jostagarriak, tristeak, umoretsuak...

Up until today, we have just received singles and EPs from this band from Ordizia. Indeed, we like this band’s philosophy: to publish albums, to refuse to play live, to reject behavior of rock stars. We were afraid that the publication of the LP could change this situation until we had the album –of a good edition and beautiful design- in our hands. One listens to the songs of Elurretan softly: they are light, naïve, unpretentious, funny, sad and humorous…

# "chrisler" museoan ez da dirua xede?

Terrakota gudaria begibistan nuenean "klik"! Iñuxente asko... ez bait nekien zertan nenbilen, baina laster ohartuko nintzen, alajaina. Bilbaoko Guggenheimen nengoen, eta zaindari gaztea zakurra baina zakarrago etorri zitzaidan, "zertan zabiltza baina... argazkia egitea okurritu ere ez!" Marruka.

"Ño" nire artean... normala... argazki kamera haraino sartzea ere burutik nola pasa zitzaidan hasi nintzen neure buruarekin peskizan. Ez bai nien sarrerako kartelei erreparatu... ez bai nintzen postal eta hormairudiak saltzeko Guggenmeim-Bilbao.ren premiaz ohartu... "Merchandising"a ordea, kultur ondare txit unibertsaleko pitxien .. Txinako Terrakota Gudariekin ari ziren egiten...

"BENETAKO KONTUA EZ BAITA DIRUA" izeneko editorialean, 2005.eko udaberrian halaxe dio Norfolk (Virginia)ko Chrisler arte museoko zuzendari WJ Henneseyk:

*Azken urteotan arte komunitatean irudipen bat nagusitu da: Diruz babesten dituzten korporazio eta gobernu agentziei benetan inporta zaiena 'inpaktu ekonomikoa' dela.*

*(...)*

*Teoria horrek zera ematen du aditzera: emaleek estatistika harrigarriak ikusten dituztenean berehala ulertzen dutela artea inbertsio ona dela... beraz segituan ematen dutela aurrerapausoa, hain premiazkoa den dirulaguntza ekarriz.*

*(...)*

*Arte erakundeok ere ez al genuke bada hobe jendeareen bizi-kalitateari nolako aldea damaiogun azpimarratzea? Chrysler museoan horretarako ari gara, lagunarte eta sendien bilgune gisa; mundua eta nork bere burua deskubritzeko moduko leku gisa".*

Bost milioi dolarretik gorako aurrekontua duen museo pribatua da hori. Akaso diru-arazorik ez duenak egin dezake gisako gogoeta. Baina idazki horrek atentzioa eman dit, zergatik? Nondik eta AEBetako super-korporazio baten "obra sozialetik" datorrelako... "gugandik hain urrun, 40 urtez aurreratuta dauden haien" joerak gurera ekartzeko moda "ultraliberalak" kulturgintzan duen eragina iradokitzen dit.

Bada, "yankilandian" ere badira "urrea ez da oro" esatera ailegatu direnak. Hortaz atzeraka doaz orain hori diotenak?

Autobide bat... edo urtegia egiten denean, legea beteko badugu, ehuneko hainbeste kulturari dedikatu behar zaio. Hantxe bertan.. errotondan edo porlanezko horman eskultura arbolatxoa bailitzan landatuta konpontzen da sarri.

Nago noski-batez ere-ezer baino lehen "inpaktu ekonomikoa"gatik preziatzen dutela gure hiriburuek, nork bere arte-garaikide-zentru-panpox berria, gerora zertarako izango den... edota jendeak profitatuko duen axola gabe. Ihartu ere egingo dira arbolatxo horietako asko... partehartze formularik ez baitzaizkio ezarri "eraikin" paregabeari, ez bertako artistekiko, ezta estralurtar espaziuntziak baino begirune beldurtiagoz begiratzen dioten jende xehearekiko ere.

Terrakotazko gudariaren argazkia, portzierto, etxean daukat hor nonbait. Zin dagit Txinako enbaxadaren aurrean, Guggenheim-Bilbao, edo Bizkaiko Foru Ogasunaren.. SPRI .. edo gisako industria-bizkortze erakunde publikoen aurrean, ez dudala argazki horrekin neure patrikarako "inpaktu ekonomikorik" sortu.



testua/by: iñaki olano

# are they not after money in the "chrysler" museum?

"Click" when I had the Terracotta soldier in my sights! Bit of an eejit really… coz I wasn't too sure what I was at, but it wouldn't be long before I found out. I was in the Guggenheim in Bilbao, and the young watchman was over to me quicker than a dog growling and wanting to know "what I was doing…I mean, how dare you take photographs!"

"Christ" I says to myself… what on earth was I thinking of when I brought this camera in here with me. I hadn't looked at the signs at the entrance. I hadn't spared a thought for the poor people in Guggenheim who need to sell postcards and posters. All this universal culture, and they were milking the Terracotta soldier for all the merchandising they could get.

"Money is not what it's really about" was the editorial used by W J Hennessey, the director of the Chrysler Art Museum in Norfolk, in the spring of 2005.

*In the last few years, a certain image has taken hold of the art community: what really matters to the corporations and government agencies that offer sponsorship is the economic impact.*

*(…)*

*What does theory lead us to believe: when the donators see these incredible statistics, they quickly realise that art is a good investment…so they are quick to move ahead and bring along the badly-needed financial subsidies.*

*(…)*

*Should art organisations not underline to people the improvement we bring to their standard of living? That's what we are here for at the Chrysler Museum, a place for family and friends to come together; a place where you can discover yourself and the world around you."*

That's a private museum with a five million dollar budget. Someone who's loaded can come up with those kind of reflections. But the article caught my eye. Why? Because it's from none other than one of the American super corporation's "social work" funds. I can picture the bend to incorporate these 'ultraliberal' trends from "those so far ahead of us, forty years ahead of us" in our world of culture.

That said, there are those who in Yankee land have proclaimed that all that glitters is not gold. Does that mean that those who are saying this are going backwards?

If we build a road or a reservoir, a certain percentage of the budget has to be dedicated to art by law. Sometimes you'll see a statue on the dam or like little trees in the middle of roundabouts. Sorted.

I'm sure that above all, our capital cities treasure that "economic impact", each one with its own new pretty little contemporary art centre that will be used for who knows what in the future… or that people will profit from without a care. Many of those trees will probably just wither away… there was no formula for taking part in this 'incomparable' building, not for local artists or not for your average Joe Soaps who gaze at these objects with more terrified respect that they would at a spaceship.

By the way, I have the Terracotta soldier photograph at home somewhere. I will swear in front of the Chinese Embassy, in Guggenheim Bilbao. Or before the Biscayan Treasury … the SPRI…. or any other public industrial development agency: I will not use this photograph for any personal financial gain.


LACUNZA
ih A MEMBER OF THE INTERNATIONAL HOUSE WORLD ORGANISATION
¿Buscas resultados?
EAQUALS
EAQUALS - THE EUROPEAN ASSOCIATION FOR QUALITY LANGUAGE SERVICES
www.lacunza.es


Salamanca pasealekua, 3 20003 Donostia • 943 42 40 40


design/ www.cabmedia.com
EDIZIOAK ETA INPRESIOAK OROKORREAN
EDITING AND PRINTING IN GENERAL
Inprimakiak, katalogoak, liburuak, liburuskak, aldizkariak, aurreinpresioa
Forms, catalogues, books, brochures, magazines, preprinting
espacegrafic
Pol. Ind. C/G, Nº 11 · 31192 Mutilva Baja · Navarra · Spain
Telf. 34 948 23 93 36 · Fax. 34 948 23 82 16
www.espacegrafic.com
e-mail: info@espacegrafic.com



kod'ak 400TMY 54

TMY 10

allende arnaiz

diseinatzaile grafikoa/ grafic designer

creative women

emakume sortzaileak

09 TMY

TMY





E eider rodriguez

idazlea/writer

beatriz churruca B

dantzaria/dancer

I itxaso mezzacasa

bitxi diseinatzailea/jewellery designer

idoia I

argazkilaria/photographer





www.gisliari.com

www.gisliari.com

patricia martinez

arkitektoa/architect



kod'ak 400TMY

53

TMY 09

**tytti thusberg**

moda diseinatzailea/ fashion designer

**dora salazar**

eskultorea/sculptress









**elena uribesalgo**

barrualde diseinatzailea/ interior designer

**eider**

ile apaintzailea/hair stylist




T

txelo

abeslaria/singer

argazkiak/shots: **gisli ari hafsteinsson**

KM
kulturunea

KOLDO MITXELENA Kulturunea

Urdaneta 9 - 20006 DONOSTIA
tel 943 112 750
sala@gipuzkoa.net
www.gipuzkoakultura.net

GAN
BA
RA

JON ZABALETA




Urriak 20 - Urtarrilak 7




ERA
KUS
TARE
TOA

Urriak 27 - Urtarrilak 7



RAÚL
URRUTIKOETXEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



# social software soziala

